



## EGITASMOAREN IZENA

# AUZOKO FAMILIAK

## "ZUBI BAT EUSKARATIK" DEKALOGOKO ZEIN OINARRIRI ERANTZUTEN DIO

- \* Harrera inguistikoa, ez formala eskaini
- \* Parte hartze sozialerako aukerak sortu
- \* Hizkuntzak eta euren arteko harremanak kudeatu
- \* Euskararen eta aniztasunaren inguruko usteak deseraiki

## AZALPEN LABURRA

Auzoko familiak euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familien elkarbizitzarako gune izateko sortu da. Herriko kultur eta hizkuntza aniztasuna balorean jarri, elkar ezagutza sustatu eta bi noranzko harrera egitea bilatzen da gune eta une horietan. Hau da, euskaratik gertu bizi diren familiak euskarara eta euskal mundurako harerra egiten die beste familiei eta euskaratik urrun bizi direnek beraien hizkuntza eta kultur aniztasunera.

## HELBURUAK

1. Euskaratik urrun dauden familiei euskarara harrera egitea.
2. Herriko familiak herriko hizkuntza aniztasunaz jabetuaraztea, bereziki euskal hiztunak diren familiak.
3. Familien arteko kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna bultzatzea.

## HARTZAILE ZUZENA(K)

Herriko ikastetxeren batean 5-10 urte bitarteko haurrak dituen familia oro. Euskaratik gertu bizi diren familiak (euskaraz hitz egiten dutenak) eta euskaratik urrun bizi diren familiak.

## FUNTZIONAMENDUA

Bi astetik behin, 4-5 familia elkartzen dira dinamizatzaileak prestatutako saio bateratuan eta hortik kanpo harremanei bide egiten saiatzen gara herriko ekintzetan parte hartzea sustatuz.

## NON MARTXAN [2021-2022]

- \* Soraluze
- \* Elgoibar

## ANTOLATZAILEA(K)

- \* Euskaltzaleen Topagunea
- \* Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea (Soraluzen)
- \* Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea Elkartea (Elgoibarren)

## KONTAKTUA

[aniztasuna@topagunea.eus](mailto:aniztasuna@topagunea.eus)